

2017ko MENDIKO ARGAZKI DIGITALEKO LEHIAKETA

Trintxerpeko Trintxer mendi taldeak bere 25. urteurrena ospatzeko gonbitea luzatzen dizue, 2017an egingo den ondoko arauak izango dituen Mendiko Argazki lehiaketan parte hartzeko.

ARAUAK:

Parte-hartzaileak:

Lehiaketa zabalik dago gustuko duen eta profesionala ez den Trintxer mendi taldearen mendi intereetan parte hartzen duen pertsona guztientzat.

Parte hartzaileek gehienez mendi irteera bakoitzeko 3 argazki bidali beharko dituzte formatu digitalean eta proposatutako gaiarekin lotura dutenak.

GAIK.

Mendia haren ikuspegi guztietan: natura, paisana, giza-jarduerak, kirol-ekintzak, mendizaletasuna, txangozaletasuna, eskalada, etab.

ARGAZKIAK BIDALTZEKO EGUTEGIA.

Lanak aurkezteko epea 2017ko otsailaren 20ean hasi eta abenduaren 23an amaituko da. Epaimahaiaren erabakia 2018ko urtarrilaren 15ean aurrera jakinaraziko da.

Sari-banaketa eta lanek osatutako erakusketaren irekiera Trintxer elkartearen egoitzan izango da 2018ko otsailaren 1ean arratsaldeko 20:00etan.

Argazkien erakusketa ikusgai egongo da astelenean eta ostegunetan arratsaldeko 19:30etatik 21:00etara otsailaren 1a eta otsailaren 28aren artean, biak barne.

ARGAZKIAK

Argazkiak parte hartzen duen pertsonak eginak izan beharko dute eta ezin izango dute argazkiarena berarena ez den elementurik izan.

Argazkiak prozesatzerakoan errebelatu digitalen berezko doitzeak onartuko dira. Ez dira onartuko argazkian edo haren ataletan egindako alterazio edo manipulazioak eta haien ondorioz, irudiak fotografiatutako errealitatearen desberdina den zerbait adierazten badu.

Epaimahaikideek haien erabakiaren arabera azken fasera pasatzen diren argazkien egilei, beharrezko irizten badiote, argazkiari buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiete.

MODALITATEAK

Edozein zuri/beltza eta kolorea.

TAMAINAK ETA ZEHAZTAPENAK

Argazkiak euskarri digitalean (CD, DVD, PEN-drive) aurkeztu beharko dira Trintxer mendi taldearen egoitzan Euskadi etorbidean, 29 helbidean, astelenero arratsaldeko 20:00etatik 21:30etara. Bestela elkarteko posta elektronikoko helbidera, trintxermenditaldea@gmail.com bidali ahal izango dira.

JPG formatean dauden argazkiak soilik onartuko dira

PARTE_HARTZAILEEN eta AURKEZTUTAKO LANEN DATUAK

Bi carpeta bidali edo aurkeztu beharko dira. Batek, epaimahaiak aztertuko duenak, argazkiak eta haietako bakoitzarentzat titulu bat edukiko ditu.. Besteak, "egilearen identifikazioa" izena edukiko duenak, ondoko informazioa izan beharko du: egilearen izen-abizenak, helbidea, kontakturako telefono zenbakia, NAN, posta elektronikoa, aurkeztutako argazkien izenburua, eta aipamen labur bat argazkia ateratako tokia, eta data.

SARIAK

1. saria argazki onenari: mendiko materiala Sonesa Kirolak dendan
2. saria: mendiko materiala Sonesa Kirolak dendan €
3. saria: mendiko materiala Sonesa Kirolak dendan €

EPAIMAHAIA

Epaimahaia Bi argazkilari profesionalak eta Trintxer mendi taldeak izendatutako beste bi kidek osatuko dute eta haien erabakiak ez du atzera bueltarik izango.

LANEN DISPOSIZIOA

Lehiaketa honetan parte hartzen duenak ziurtatu behar du lanen egilea dela eta baimena ematen dio antolakuntzari hautatutako obren kopiak egiteko, autorearen izena adierazita, ezer ordaindu gabe.

OHARRAK

Arau hauen interpretaziotik sor daitezkeen edozein arazo edo ezusteko antolakuntzaren irizpideen arabera ebaztuko da.

Lehiaketa honetan parte hartzen duenak zerrendatutako arauak onartu behar ditu.

